

# Kotlarro

11  
zbk.

2010ko otsaila

debaldeko alea

## Garean-Jarduerak

### Lizarran Kantuz

otsailak 27  
martxoak 27  
apirilak 24  
maiatzak 29  
Arratsaldeko 19:30etan  
Baxenabarra kaletik

### Txokolipuinak

otsailak 24  
martxoak 17  
apirilak 28  
maiatzak 19  
Arratsaldeko 18:00etan  
La Bota elkartean

### Jolas-Solas

otsailak 3  
martxoak 3  
apirilak 14  
maiatzak 5  
Arratsaldeko 17:00-18:30  
Maria Vicuñarenean

### Larunblai / Jauzi

otsailak 20, 27  
martxoak 6, 13, 27  
apirilak 17, 24  
maiatzak 8, 15, 22, 29  
Arratsaldeko 16:30-18:30  
Remontival pilotalekuan  
eta Maria Vicuñarenean

### Garean Irratian

Larunbatero 13:00tik aurrera  
Lizarrako Punto Radio-n (FM 93.5ean)



## Matrikulatu euskaraz!

*Aurten ere, haurrak matrikulatzeko garaia iritsi delarik, Garean Elkartek dei hori zabaldu nahi du. Eta haurrak gogoan izanik, berriro Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-en ekitaldia antolatu dugu, haur euskaldunon besta handia ospatzeko.*

Urtero matrikulazio kanpaina hastear dagoenean, ikastetxe batean edo bestean matrikulatzeko arrazoiak entzuten ditugu. Gurasook aukera dute beren seme-alabek non ikasi behar duten. Baina horretaz gain, zein hizkuntzetan ikasi behar duten ere aukera dezakete.

Garean Euskaldunon Elkartek iaz estreina-koz umeak euskarazko irakaskuntza bermatzen duten ikastetxeetan eta ereduatan matrikulatzearen aldeko kanpaina egin zuen. Julen Arexolaleiba unibertsitateko irakasleak «Zalantzak argitu. Euskaraz matrikulatzearen abantailak» izeneko hitzaldia eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Piratak* izeneko ikuskizuna antolatu genituen. Horretaz gain, euskaraz matrikulatzeko 11 arrazoi zerrendatu genituen, baita banatu ere.

*Hemen bertan, unibertso bat irabaziko du*

Hitzaldiaren eta 11 arrazoi izeneko idazkieren bidez, euskaraz matrikulatzeko argudioak eman nahi genituen, batez ere, euskaraz ikastea merezi duela aldarrikatzeko. Jakin badakigu, zenbait gurasoentzat erabaki zaila dela eta elkartearen ekarpena izan daiteke, erabakia hartzeko unean euskaraz egiteko arrazoi gehiago ematea.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizuna, berriz, euskarazko unibertsoak umei irekitzen dizkien aukerez gozatzeko adibidea izan zen eta, zalantzarik gabe, bertaratu ziren umeak oso ondo ibili ziren.

Aurten ere kanpaina hau berriro egin nahi dugu eta, bereziki, gurasoei ideia hau helarazi nahi diegu: seme-alabak euskaraz matrikulatu, euskararen unibertsoaren antzaren eta aberatsaren atea irekiko zaie.

# Hamaika arrazoi euskaraz matrikulatzeko

Garean Euskaldunon Elkarteak «Matrikulatu Euskaraz!» kanpainaren barruan informazio orria banatu du, gurasoek informazio izan dezaten. Jakin badakigu Kotarro irakurleok, seme-alabak dituzuenok, euskaraz matrikulatuko dituzuela, baina egokia da hori egiteko ditugun argudioak elkarrekin konpartitzea, pentsatzen duguna hitzez adieraziz. Horrela, noizbait egoera suertatzen bada gure inguruko norbaitekin ideiak hobeki defendatuko ditugu. Horregatik bada, hauek dira Garean-en argudioak:

1. Orain arteko esperientzia luzeak frogatzen du euskarazko ereduak bakarrik ahalbidetzen duela haurrek euskara eta gaztelania ikastea.
2. Euskara eta beste hizkuntza bat dakiten haurrek abantaila linguistiko eta kognitiboak izaten dituzte beste hizkuntza batzuk ikasteko.
3. Gaur egun euskarazko ereduak ikasten duten haurrak, etorkizunean hiru hizkuntzetan mintzatzeko gai izanen dira: euskaraz, gaztelera eta ingelesez.
4. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saileko datuek erakusten dute euskarazko ereduak ikasten duten ikasleek emaitza akademiko onak lortzen dituztela.
5. Euskarazko ereduak eskolatuak haurrek sormen handia eta arazoak konpontzeko gaitasuna erakusten dute.
6. Euskal ereduak ikasleek balore, kultur, ohitura eta hizkuntza ezberdinen aurrean jarrera irekia erakusten dute.
7. Hizkuntza bakoitza da ingurua ulertzeko modu desberdin bat. Gure lurraldeko kultura, ohiturak, kantak... ulertzeko euskara ezagutu beharra dago.
8. Gure inguruan, haur batek eskolatik ateratzean euskara eta gaztelania ongi badakizki, gure kultura bere osotasunean ezagutzeko aukera lortuko du.
9. Euskararekin batera hizkuntza gehiago jakiteak hainbat abantaila ekarriko dio umeari etorkizunean, adibidez, lan aukera hobea izatea.
10. Zure seme-alabak euskaraz matrikulatu, euskararen unibertso anitzaren eta aberatsaren atea irekiko diezu.
11. Matrikulatu euskaraz eta hemen bertan, unibertso bat oparituko diezu.



# Pirritx, Porrotx eta Mari Motots berriro Lizarran

1987an sortu zen taldea eta lehen emanaldia Lasarte-Oriako ikastetxeek antolatzen duten Olentzeroren jaialdi barruan egin zuten. Hasierako emanaldietan zuzenean abesten zuten gitarra batekin. Laster hasi ziren diskak argitaratzen, gidoi jantziagoak eta dekorazio zein atrezzo zainduagoak prestatzen. Gero bideoak etorri ziren. Eta azken urteetan ekitaldi jendetsuak egiten ditu taldeak. Azkena BEC-en eskaini zutena, oztopoak gaudituz milaka eta milaka haurren aitzinean. Denboraren joanean, taldea zabaldu egin da eta pailazoez gain dantzari, musikari, margolariek ere parte hartzen dute.\*

Hogeita bi urtean pailazo lanean aritu dira, hainbat haur gizon eta emakume bihurtu dira tarte horretan eta sasoi bateko haur ikusleak guraso moduan joaten hasi dira haurren bigarren belaunaldiari lagunduz.

Ikuskizun koloretsua, ikusgarria, haurrek parte hartzeko modukoa, kantuen xarma eta lilura. Eta gainera euskaraz ongi pasatzeko tenorea. Haurrei balore batzuk transmititzen saiatzen dira: lehiakortasun eza, lagunartea, ingurua zaintzea, neska-mutilen harremanetan berdintasuna garatzea... Gainera horretarako garrantzitsua da pailazoetan neskak egotea.

Globalizazioaren garaian, haurren heldutze prozesua azkartzen ari den garaian etapak lehenago erretzen dira. Lehen haurrak haur ziren 13 edo 14 urte arte, orain 8 urteko haurrak haurtzaroa atzean utzi nahi du, inozentzia lehenago galtzen dute. Hainbesteko eskaintza dago, hainbesteko bonbardaketa, haurrengan lehenago azeleratzen dela heldutze prozesua.

Utzi haurrei haurtzaroa izaten. Heldu den otsailaren 10ean, haurrak, txikiagoak edo helduagoak eta gurasoak elkartuko dira Lizarrako Kiroldegian, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsekin batera.

\*Argia aldizkariko 1907 zenbakitik jasotako datuak dira



**Bodegas Lezaun**  
Asador-Jatetxea

Enoturismo  
Bisita gidatuak  
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierr) NAFARROA  
info@lezaun.com - www.lezaun.com  
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA  
**INO**  
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2  
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA



## Harira



# Zer eman dit euskarak?

(Berez, izenburu hau beharko luke, baina...:  
«Hamaika arrazoi haurrak euskaraz matrikulatzeko».)

■ Xabier laben

Hiztegiak zera dio *eman* aditzaren esanahia definitzean: “Norbait (zerbaiten) edukitzaile egin” edota “(zerbait) norbaiten esku ezarri”. Nik euskararekin orain arte izan dudana idilioan barrena atzera eginez gero, lehen oroitzapenak Iruñean sortu berria zen ikastolarekin lotzen ditut: Arantzatik, Etxarritik, Tolosatik gurera etorri ziren hainbertze andereñoen solas jostari xarmaz beteak, gu ginen umemoko hirikumeon belarriak ema-emaro goxatu zituztenak. Eta hortik aitzina euskarak eman bertzerik ez dit egin nire bizitzan. Desleial nintzaiolarik ere —lekua, garaia eta adina zela, hainbertzetan lerratzen ginen erdarara—, hantxe ikusten nuen beti plazer emateko prest, bere leialtasunean fermu eta emankor.

Gero, haurtzaroaren akabailan eta nerabezaroren hasmentan, bide eman zidan Euskal Herriko xoko aunitzetako adin bereko neska-mutilak ezagutzeko: lehen euskal udalekuak ziren, eta euskarak aukera eman zigun txokokeriak jotako Iruñeko desertu erdalzale hartatik lipar batez atera eta euskaraz zipriztinduriko urrin fresko berria

sudurreratzeko: garai hartakoak lehen amodio eta desamodioak, eta denak euskarari lotuak. Muxukatu, besarkatu, igurtzi, zirri egin... euskarak bihotz ematen zigun gure maite-lanetan. Eta tenore hartako maitemin orori euskarak zion emana bere ikutua, bere zaporea eta noiz edo noiz ere bere erdeinua eta mingostasuna, eman-beharraren eman-beharraz, jakina.

... euskarak bihotz ematen zigun gure maite-lanetan.

Euskarak ere gure xahar amultsuen aspaldiko kontu-kantubertso-istorio aditu eta konprenitzeko parada eman zidan, haien begi-bihotzetan sartu eta iragan kontuei begira jartzeko, betiere etorkizunerako irakasbide. Euskarak, halaber, eman dit hainbertze xokotan

(Euskal Herri osokoak, baina batez ere Nafarroako mendialdekoak zein Lapurdi, Baxenafar nola Xiberokoak ditut iltzatuen) kantuz eta mintzoz gozatzeko bidea.

Finean, euskara bidelagun eta bide-erakusle, hainbertze mundu ttiki ezagutzeko zoria izan dut, erdaldun huts izateak nekez ekarriko zidakeena. Eta zer erranik ez, literaturaren ere-



muan ere eman dit euskarak, eta zer gozatua ekarri. Buruan ditut, konparazione, Axularren hitzok: "Komunzki ahotan dabilan solasa da. Ez dugu geroko segurantzarik, beti gara periletan. Eta hala da egia. Zeren gutien uzten dugunean, geure gogarenik gaudenean eta aitzinerat ere anitz gauzaren egiteko gogo hartzen dugunean, atrapatzen baikaitu heriotzak". Edota Letxundirenak bere *Otto Pette*-n: "Eskua pasa nuen, leun, neskaren ile leunagoan behera, Grazibelek nire bularraren kontra laxatu zuen burua, begiak itxita, ezpainen tan sosegu irribarretsua zuela. Sakoneko arnasak atsegina erantsi zion neskaren soseguari, nire eskuak lepo zuri luzexkaren fereka-lanetan laketu zirenean. Presarik gabeko solasa zen nirea, asti emanez astiari, joko pausatuak denbora geldiaraziko zuen itxaropenez". Eta Juan Garzia itzultzaile bikainari esker, *Hamlet* euskara ezin ederragoan gozatzeko modua: "Hamlet: Kalumniak, lagun; satiragile doilorrak baitio, hara, urdinuak dituztela agurreek bizarrak, haien aurpegiak zimurturik daudela, begiei erretxina lodi eta aranondo-goma dariela, eta aurki nagusitzen zaiela buru-eskasia, guztizko zango-ahultasunarekin batera... zerori, lagun, ene adineko zinateke, baldin karramarro antzo atzera egin ahal bazeneza".

Nire euskarekiko aspaldiko maitasunaldi luzean, beti jokatu du leial eta fier, plazer-iturri zahar zein berrien gordailu xorrotx, beti eskuzabal, atsegin-lagun, altzo xamur, altxor jori. Euskara... hirekin nagoenean, emakume eder baten antzo, hiketan egiten dinat beti, eta isilean eskertzen dizkinat

*... leial eta fier... beti eskuzabal, atsegin-lagun, altzo xamur, altxor jori.*



Axular etxea

hiri zor dizkinadanak; oraingoan, aldiz, argi piskabat eman zizkienat hireganako sentimenduei, eta lotsa-izpi bat ere nabaritzen dinat, baina ez kezkatu, maitale berriak hireganatzeko xedez egin baitut hori, eta bazakinat ongi konprenituko dunala, ez baihaiz atzo sortua.

Tira, bada, hementxe utziko dut solasa, baina, akitu aitzin, erran dezadan garbi euskarak jarraituko didala zerbait aditzera ematen, noizbehinka ere amore ematen, gehienetan gogoak ematen, eta kontu ematen tarteka, baita ontzat ematen nik egin erratuak, eta bere emanaldi, emankizun zein eman-beharretan beti emanen dizkit eskura nire gutizi, grinak eta desirak asetzeko adinako hitz eta solas, neurritz eta tentuz eman ere. Esker mila, zinez, nire bihotz-zolan dantzan habilkidan euskara maitea.

**Jatetxea**

**Volante**

*Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak*

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

**ILARGI**

ESTELLA-LIZARRA

**Deigual**

Nagusia kalea, 22  
Tel. 948 553 421

## Foto-inkesta



## Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Heldu den otsailaren 10ean, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots datozenez Lizarrara, gure fotoinkesta honetarako gai proposena aurkitu dugu eta, Lizarrako lau haurri pailazo hauei buruz egin diegu inkesta.

1. Zenbat aldiz ikusi dituzu?
2. Zer gustatzen zaizu?
3. Zer iruditzen zaizu pailazoan lanbidea? Zeu ere pailazo lanbidean gustura arituko al zinateke?



**Oier Montón**

1. Bitan ikusi ditut.
2. Haiekin batera kantatzea gustatzen zait, gehien bat "Maite zaitut...".
3. Oso dibertigarria, grazia handia ematen dutelako. Peluka, aurpegia margotua izatea gustatuko litzaidake baina zapata handiak izatea, ez.



**Edurne Labeaga**

1. Hiru aldiz ikusi ditut.
2. Porrotxek esaten duenean: "E, txorizo Pamplona!" eta Pirritx eta Marimototsen jantziak.
3. Pailazo izatea oso polita iruditzen zait eszenario batean ateratzen direlako. Baletan ni ere ateratzen naiz eta asko gustatzen zait jendearen aurrean agertzea.



**Anne Zudaire**

1. Bi aldiz ikusi ditut zuzenean. Lagunen etxean ere ikusi izan ditut DVD-an. Berriz ere Lizarrara etortzea nahi nuke joan ahal izateko.
2. Grazia egiten didate oso dibertigarriak direlako. Porrotxek nola hitz egiten duen grazia egiten dit. "Maite zaitut" da gehien atsegin dudana kanta.

3. Ez nuke pailazo izan nahi baina pailazo gustura mozorratuko nintzateke, zapata handi horiekin! Baina ez daukat mozorrorik.




**Irati Polo**

1. Bi aldiz ikusi ditut Lizarran. Etxean bi pelikula ditut: bata Olentzerok nire anaiari ekarri ziona eta bestea nik ez dakit zenbat urte dela ekarri zidatena.
2. Pailazoak direla. Kantak asko atsegin ditut. Indioen kanta asko gustatzen zait.
3. Ez nuke pailazo izan nahi, handia egiten naizenean ile-apaintzailea izan nahi dudalako.

ESTRELLA PASTELERIA GOXOTEGIA LIZARRARA  
NAPAL MONTOYA  
**Angela**  
Plaza Fueros 2 - Tel 948 55 07 95

**KATXETAS**  
Taberna  
Estudio de Gramática, 2  
31200 Lizarra- Nafarroa  
Tel. 948 550 010




## denborapasak



## Gurutzegramak

Pirritx, Porrotx  
eta Mari Motots



### Ezker eskuin

1. Pailazoen oso-oso handiak jantzen dituzte.
4. Pirritx eta Porrotxen kide ohia.
6. Pirritx eta Porrotxen kide berria.
7. Porrotxek erran ohi duen hitz ospetsua.

### Goitik-behera

2. Pailazoen antzokia.
3. Pailazoen pila-pila maite duen janaria.
5. Pailazoa ingeleraez.
8. Pailazoen aurpegian eduki ohi duten gezurrezko atala

## Euskalglifoa

Barreak...

**2** AZKENA



LEHENA



**Udalbide.NET**  
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberriera eta ikus ezazu zure UDALERRIaren informazio guztia eguneratua.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor aurkituko dituzu Lurr-aldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hezkuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporen inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitzez BULETIN ASTEHARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak

ZUREKIN

www.udalbide.net  
www.udalbiltza.eu

**Mirari**  
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella  
t. 948 554 001

www.centromirari.com



# Ihauteriak 2010

## Otsailak 6, larunbata.

### HERRI IHAUTERI EGUNA

**10:00** Pinupe Gaztetxean bilduko gara mozorrotzeko eta eskean aterako gara 11:00tan musikaz lagundurik. Salda egongo da.

**11:30** Haur jolasak eta mozorro tailerra Foru Plazan

**13:00** Eskean jasotakoarekin, hamaiketako herrikoia.

**14:30** Babarrun bazkaria Peñagudan. Txartelak salgai Irrintzi liburudendan, Katxetas Tabernan eta Pinupe Gaztetxean otsailak 2 arte.

**17:30** Rocamador auzora igoera Peñagudatik Aldabika hartzeko. Luntx egongo da.

**19:15** Aldabika tabernatik irtenda, Aldabikaren jeitsiera musikaz lagunduta.

**20:00** Mozorro herrikoien kontzentrazioa Peña La Botan, Valdeallin kalean.

**20:30** Mozorro tradizionalen kalejira, ziripot, sorginak, gaiteroak, txistulari, trikitilari, joaldun, zankodun eta dantzariak lagundurik. Foru plazan, ihauterietako pertsonaien aurkezpen bat egongo da. Jarraian Foru plazan **ALDABIKA** erreko dugu.

**22:30** Peña La Botan berrian luntxa partehartzaileekin

**00:00** Dantzaldia ROMANESekin, La Botan.

## Otsailak 13, larunbata.


### MOZORRO ANITZEN EGUNA

**17:00** Foru plazan haur mozorroen kontzentrazioa eta musika.

**19:00** Txokolatada eta musika

**20.30** Zehensuskoa Foru Plazan.

**01:00** Mozorro Larrain dantza Deierri Gaiteroekin



kotarro

11. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E  
31200 Lizarra - Nafarroa  
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

**Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak**



Diseinua eta maketazioa:  
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007  
Ale kopurua: 800

UDALBIDE  
ELKARLAN ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.